

ZAPATUETAKO TAILERRAK (DANTZA GARAIKIDEA) 2014



Eibarko Udalak dantza garaikide tailerra antolatu du euskaraz mintzatzeko ondo pasatzen duten bitartean

Tramitatzailea: Kultura

Hartzaileak: lehen hezkuntzako 2., 3. eta 4. mailako haurrak

Ordutegia: Hiru talde egongo dira.

LH 2. mailakoak: 16:00etatik 17:00etara

LH 3. eta 4. mailakoak: 17:00etatik 18:00etara edo 18:00etatik 19:00etara.

(ordutegia matrikula orrian aukeratu)

Ikastaroaren prezioa: 10€ (Eibarren erroldatuak)
20€ (Eibartik kanpokoak)

Ikastaroaren ordainketa: matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta

Eskaera egiteko tokia:

PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

Nork emango du: Marina Crucelaegui

Non eta noiz: Portalea. Larunbat arratsaldeetan urriaren 18tik azaroaren 8ra arte (biak barne)

Ikastarora ekarri behar den materiala:

arropa eta zapatilla erosoak.

Ikasle kopurua: gutxienez 10 ikasle, eta gehienez 20 ikasle

Ikastaroaren hizkuntza: euskara.

Eskaera egiteko epea:

irailaren 29tik urriaren 7ra (biak barne)

Aurkeztu beharreko agiriak:

“IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.eus, eskuragarri).

Aitaren, amaren edo tutorearen NANaren edo balio bereko dokumenturen baten kopia.

NAN dokumentuaren alde biak A-4 neurriko alde bakar batean inprimatuko dira.

Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Kudeaketa arauak:

Izena emateko bi aukera ezberdin daude:

- 1.- Bakarka: pertsona bakoitzak bere matrikula orria bete beharko du eta zozketarako zenbaki bat izango du. Zozketa beharrezkoa izanez gerobakarrik egingo da.
- 2.-Binaka: bi lagunek elkarrekin izena eman ahal dute. Aukera hau erabiltzerakoan bikotea zenbaki bakarrarekin sartuko da zozketan, era honetan biek lortuko dute plaza, edo biek geratuko dira kanpoan.

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus), 2014ko **urriaren 10ean**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da.** Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **urriaren 10ean 14:00etan**
Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastaroan izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egingo da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio. Izen ematea binaka egiten dutenen kasuan, bietatik alfabetikoki aurrenen dagoen abizena sartuko da;

Hiru zerrenda egongo dira, ordutegi edo txanda bakoitzeko bat.

Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zerrenda bakoitzeko zenbaki bakar bat aterako da.

Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte eta binaka izena eman dutenak kontuan izanda.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean egongo da **urriaren 16tik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Oharrak: Talde batean izena emandako kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua

gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada eta beste taldeetan izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, aurreneko taldea beste taldeko ikasleez osatu ahal izango da zozketak emandako emaitzari atxikituz eta ikastaroa jasoko duten ikasleen adin bereko taldeari lehentasuna emanez.

Informazio gehiago: 943 708 437